

**SND/422/2020 Ministro-agindua, maiatzaren 19koa, baldintzak arautzen dituena maskarak nahitaez erabiltzeko COVID-19ak eragindako osasun krisiak iraun bitartean.**

Aginduari jarraiki, edozein motatako maskarak, bereziki higienikoak eta kirurgikoak, erabiltzea nahitaezkoa izanen da sei urtetik gorako pertsonentzat.

Hala ere, ondorengo kasuetan maskaren erabilera ez da nahitaezkoa izango:

- a) Arnasteko arazoren bat duten pertsonen kasuan eta maskararen erabilerak zailtasun hori areagotzen duenean.
- b) Behar bezala justifikatutako osasun arazoak direla eta maskaren erabilera kontraindikaturik duten pertsonen kasuan, edo desgaitasun- edo mendekotasun-egoeratik maskararen erabilera bideraezina egiten duten jokabide-aldaketak dituztenen kasuan.
- c) Jardueren izaeratik beragatik maskara erabiltzea bateraezina den jarduerak egiterakoan.
- d) Ezinbesteko kausa edo premia-egoera dagoen kasuetan.

Aipatutako ministro-aginduak ezartzen du nahitaez erabili behar dela maskara garraio publikoan, bide publikoan, aire zabaleko espazioetan eta erabilera publikoko edo jendearentzat irekita dagoen edozein espazio itxitan, baldin eta ezinezkoa bada gutxienez bi metroko distantzia soziala bermatzea.

Maskara nahitaez erabili beharko da maiatzaren 21etik aurrera, bihurtik aurrera alegia, adierazitako baldintzetan.